

# USTEKABE



"PRIMERAKO" TXARANGA | UNA TXARANGA "DE PRIMERA"

## USTEKABE FANFARREA

BITTOR SARASKETA 7, 3  
20600 EIBAR (GIPUZKOA)  
TLF: 649933512  
ustekabe@gmail.com  
www.ustekabe.com



---

## Ustekabek derbirako giroa alaitu eta Eibarren akzioak erosiko ditu

**El Diario Vasco egunkariak Ustekabe kontratatu du derbiaren aurreko orduak animatzeko, eta fanfarreak akziotan inbertituko du kobratutakoa**

INFO+: 2 or

---

## Ustekabe ameniza la previa al derby y compra acciones del Eibar

**El Diario Vasco contrata a Ustekabe para amenizar las horas previas al partido del Eibar, y la fanfarre destinará lo facturado a compra de acciones de la S.D. Eibar**

INF+: pag 4



”PRIMERAKO” TXARANGA | UNA TXARANGA ”DE PRIMERA”

## Ustekabek partidarako giroa alaitu eta akzioak erosiko ditu

**El Diario Vasco egunkariak Ustekabe kontratatu du derbiaren aurreko orduak animatzeko, eta fanfarreak akziotan inbertituko du kobratutakoa**

Ustekabe fanfarreak Eibarko kaleak alaituko ditu datorren maiatzaren 25ean, igandearekin, 17:30ak eta 20:00ak bitartean (partida hasi . Emanaldia El Diario Vasco egunkariak kontratatuko du, Eibar-Alaves partidaren aurreko orduak girotzeko asmoz, eta fanfarreak fakturatutako guztia erabiliko du Eibar Kirol Elkartearen akzioak erosteko.

Ekimena El Diario Vascoren (DV) eta Ustekabe fanfarrearen arteko elkarlanaren ondorio da. Ustekabe fanfarreak duela zenbait aste eskaintza komertziala egin zion Eibar Kirol Elkarteari, eta DVk eutsi dio proposamenari. Klubaren alde egiteko asmoz, DVk Ustekabe fanfarrea kontratatu du kale-giroa sortze aldera, eta fanfarrearen tarifa osoa ordainduko du. Trukean, fanfarreak jasotako diru osoa akziotan inbertituko du. Zehazki, 23 akzio erosiko ditu Eibarko Ustekabe Fanfarrea Gazte Elkartek.

Estaziño kalean hasiko da emanaldia, 17:30etan. Kalejiran Untzaga ingurura igoko da Ustekabe txaranga, eta 18:30etan Eibarko laguntaldeekin batera kalejira handia egingo da Ipuruara. Futbol zelai inguruan arituko dira gero. Aktuazioa partida hasi baino minutu gutxi lehenago amaituko da, eta futbol partidako animazioa txarangerik gabe izango da, klubaren erabakiz.

### Konpromisoa klubarekin

Ekimenarekin, Ustekabe fanfarreak berretsi egiten du Eibarko herriarekiko eta Eibar Kirol Elkartearikiko konpromisoa, urteetan zehar hainbat modutan erakutsitakoa. Izan ere, Ustekabek bere sorreran hainbat futbol partida animatu zituen. Gero, Jaime Barriuso klubeko presidente izendatu zutenean, bere ekimenez denboraldi bakarrean 12 partidatan aritu ziren musikariak. Azken hamar urteotan hainbat aldiz hartu du parte Ustekabek laguntaldeekin, klubarekin edo tabernariekin. Iazko igoera ospatzeko hainbat tabernaren ekimenez, fanfarrea kale-giroa alaitzen aritu zen.



## ”PRIMERAKO” TXARANGA | UNA TXARANGA ”DE PRIMERA”

Gainera, musikarien ekimen propioz ere jardun izan da Ustekabe. Iaz, adibidez, Eibar-Athletic partidaren aurretik kalejira egin zuten Ipuruara. Igoeraren ospakizunean, bestalde, jokalarien atzetik joan ziren Estaziñotik Untzagaraino. Iragan apirillean, fanfarreak proposamena egin zion Eibar Kirol Elkarteari: kontratatuz gero, diru osoa akzio-erosketarako izatea. Josu Mendikute pozik azaldu da akordioa ezagutzera ematen, “jakin badakigu gure laguntzak ez duela Eibar K.E.aren egoera onbideratuko, baina bide horretan lagungarri izan daitekeelakoan gaude”, azaldu du. Mendikutek gaineratu duenez, “Ustekabek beti babestu du Eibar Kirol Elkartea, eta babes hori gauzatzeko formulak aztertzeke prest egongo gara beti”.

### **Nazioartean saritua**

Igandekoa lehen emanaldia izango da, Ustekabe fanfarreak Condomeko (Armagnac, Frantzia) Banda Jaialdian saria lortu duenetik. Iragan maiatzaren 10ean eta 11n Condom-eko (Armagnac, Frantzia) Europako Banda Jaialdian izan ziren eibartarrak, eta besapean saria zutela itzuli ziren, Gascon d’Argent (bigarren tradizio saria) lortu baitzuten bertan.

Txarangen munduan jaialdi garrantzitsuenetakoa da Condom-ekoa. Milaka ikusentzule izaten dira bertan, eta dozenaka banda. Horien artean txikiena eta gazteena izan zen Ustekabe. Hunkituta agertu da Xabier Oruesagasti presidente gaztea: “bene-benetan harro nago taldea osatzen dugun guzti-guztiotaz. Konpromiso handia hartu genuen duela hilabete batzuk eta jakin dugu serio egoten, egoerak hala eskatzen zuenean. Esperientzia honek erakutsi digu lanean jarraitzen badugu, zeresan handia izango dugula emateko. Orain, udarekin, gure lanerako denboraldi handiena datorrela, egindako lanaz gozatu ahal izango dugu”, azaldu du.

### **Emanaldia Abadiñon, larunbatean**

Larunbatean, Eibarren jo bezperan, Ustekabekoak Abadiñon izango dira, San Trokaz jaiak direla-eta. Kalejira 17:30ean hasiko da. Datozen asteotarako ere hainbat emanaldi aurreikusten dituzte Ustekabekoek, eta badaramatzate aste batzuk udako egutegia finkatzen. Irailean hasitako ikasturtean hainbat lekutan jo dute dagoeneko, besteak beste Elorrio, Donostia, Eibar, Aretxabaleta, Balmaseda, Matiena eta Condom-en.



"PRIMERAKO" TXARANGA | UNA TXARANGA "DE PRIMERA"

## Ustekabe ameniza la previa al derby y compra acciones

**El Diario Vasco contrata a Ustekabe para amenizar las horas previas al partido del Eibar, y la fanfarre destinará lo facturado a compra de acciones de la S.D. Eibar**

La fanfarre Ustekabe actuará el próximo domingo, 25 de mayo, en las calles de Eibar de 17:30 a 20:00 horas. Se trata de una actuación contratada por El Diario Vasco y cuya facturación se dedicará íntegramente a la compra de acciones de la S.D. Eibar.

La iniciativa es fruto de la colaboración entre El Diario Vasco (DV) y la fanfarre Ustekabe, que hace algunas semanas hizo una oferta comercial al club, y la misma ha sido acogida finalmente por DV. Ambas entidades muestran así su incondicional apoyo a la entidad azulgrana: DV contrata a la fanfarre para crear ambiente antes del partido, y la fanfarre reinvierte los ingresos en la compra de acciones del club. En concreto, Ustekabe adquirirá 23 acciones, para colaborar así en la ampliación de capital.

La actuación comenzará a las 17:30 desde la Estación, donde comenzará pasacalles que recorrerá Estaziño, Errebal, Julian Etxeberria y Toribio Etxebarria. A las 18:30 la txaranga se sumará a las peñas azulgranas para subir en gran kalejira popular hasta las inmediaciones del campo de Ipurua, donde continuará la fiesta hasta minutos antes de comenzar el partido. Ya en el campo, la animación tendrá continuidad sin la txaranga, por decisión del club.

### Compromiso con el Eibar

Con esta iniciativa, la fanfarre Ustekabe vuelve a mostrar su compromiso tanto con la ciudad de Eibar como con la Sociedad Deportiva Eibar, que en los últimos años se ha reflejado en diferentes tipos de colaboración: ya en sus primeros meses de andadura, la txaranga local acudió a varios partidos en Ipurua. Después, con la entrada de Jaime Barriuso a la presidencia del club, los músicos locales acudieron a un total de 12 partidos de una temporada. En la última década Ustekabe ha colaborado en diversas





## ”PRIMERAKO” TXARANGA | UNA TXARANGA ”DE PRIMERA”

ocasiones con las peñas, el club o incluso con los hosteleros de la ciudad, que en el ascenso del pasado año tuvieron también una colaboración.

Además, Ustekabe ha actuado también en más de una ocasión por iniciativa propia. La temporada pasada, por ejemplo, hicieron una kalejira a Ipurua, previa al derby contra el Athletic de Bilbao. Posteriormente, en la celebración del ascenso, acompañaron a los futbolistas desde la Estación hasta Untzaga. El pasado mes de abril la fanfarre expuso a la Sociedad Deportiva Eibar su voluntad para, en caso de ser contratada, destinar el 100% de lo ingresado a la compra de acciones. Josu Mendicute, miembro de la agrupación, se muestra satisfecho al dar a conocer el acuerdo. “Sabemos que no vamos a arreglar el problema que han causado a la S.D. Eibar, pero creemos que así podemos aportar nuestro granito de arena. DV y Ustekabe nos hemos unido por una misma causa: ayudar al Eibar”, explica. Según añade, “Ustekabe siempre ha apoyado al Eibar y siempre estará dispuesta a estudiar fórmulas para materializar ese apoyo”.

### Con premio internacional

La del domingo será la primera actuación que Ustekabe hará en Eibar tras su victorioso paso por el Festival Europeo de Bandas de Condom (Armagnac, Francia), donde el pasado 11 de mayo se hizo con el prestigioso premio “Gascon d’ Argent” (segundo premio de banda tradición).

El de Condom es uno de los festivales más importantes para las txarangas, donde acuden miles de espectadores y participan docenas de bandas. De todas ellas, Ustekabe fue la más humilde en número de músicos y la más joven de todas ellas. Su presidente, Xabier Oruesagasti, se mostraba satisfecho por el resultado: “estoy francamente orgulloso de todos y cada uno de nosotros. Asumimos un gran compromiso hace unos meses y hemos sabido estar serios cuando las circunstancias así lo han pedido. Esta experiencia nos ha demostrado que, si seguimos trabajando, tenemos mucha guerra por dar. Tenemos fuerza para seguir con esto un buen rato. Ahora empieza la temporada alta y vamos a poder disfrutar en las actuaciones de todo el trabajo realizado”, se congratula.

### El sábado, a Abadiño

El sábado, víspera de actuar en Eibar, los de Ustekabe calentarán motores en Abadiño, a las 17:30, con motivo de las fiestas de San Trokaz. En las próximas semanas esperan anunciar nuevas actuaciones, ya que están confeccionando el calendario de verano. En



"PRIMERAKO" TXARANGA | UNA TXARANGA "DE PRIMERA"

lo que lleva de temporada, los músicos eibarreses han actuado, entre otros, en Elorrio, San Sebastián, Eibar, Aretxabaleta, Matiena o Condom.

## USTEKABE FANFARREA

Bittor Sarasketa 7, 3  
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

TLF: 649933512  
[ustekabe@gmail.com](mailto:ustekabe@gmail.com)  
[www.ustekabe.com](http://www.ustekabe.com)